# BERRIGARA

1. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1994, abenduak 2



*Lierni Irizar*

# HIESari aurre eginaz

**Autoberezi**



FIAT Alfa Romeo



ANTIGUA AUZOA, ANTZUOLA (GIPUZKOA)
☎ 76 62 10 / 76 62 75


ANOETAko BELODROMOAN.
SARRERAK
OHIZKO LEKUETAN SALGAI
AURREZ: 1000 pzta.
40 libera.
EGUN BEREAN: 1200 pzta.
52 libera.
HAURRAK: 300 pzta.
12 libera.
Egunkaria
LAUGARREN URTEBETETZEA
EUSKALDUNON EGUNKARIA
Abenduak 17 Larunbata
Euskaldunon Festa
5'30etan: MAIDER eta ALAITZ • AIRE AHIZPAK • TUMBADITO, SALSA TALDEA • PAILAZOAK • MIKEL MARKEZ • PEKATA MINUTA •

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

**Argitaratzailea:**
JARDUN Elkartea.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxa: 76 08 19
**Zuzendaria:**
Gorka Elorza
**Erredakzioa:**
Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezibar
**Maketazioa:**
Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil
**Publizitatea:**
Alex Azkarate
**Harpidetzak:**
Gorka Elorza
**Testuen zuzenketak:**
Estepan Plazaola
Maripi Laskurain
Alex Labaien
**Erredakzio kontseilua:**
Miguel Angel Elkoroberezibar
Estepan Plazaola
Alex Labaien
Iñaki Eraña
**Komikiak:**
Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Jose Martin Ezenarro
Julian Ezenarro
Alex Ugalde
Unai Azkarate
**Banaketa:**
Txantxangorri taldea

**Tirada:**
3700 ale.
**Inprimategia:**
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)
**Copyright:**
BERRIGARA
**Lege gordailua:**
SS 50/91
**ISSN:**
1130-6599

**BERRIGARAk** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E R B E R I D A ?

# ROBERTO IRIGOIEN

## *Zubillagan lanean ari den suhiltzailea*



**- Zer dela eta suhiltzaileen protestak?**

- Jende falta dago eta bonbero profesional gehiago kontratatzea eskatzen dugu. Ez dugu uste soluzio onena dauden zuloak boluntarioekin betetzea denik, jende hori oraindik ikasten baitago. Badirudi Diputazioaren joera hori dela, boluntarioei zuzendutako bigarren deialdia egin baita Ordizian eta Tolosan. Ez gaude euren kontra baina hasierako lanak azkarren eta hobekien egiteko bonbero profesional kopuru minimo bat behar da.

**- Noiztik arazo hori?**

- Hasieratik, Zubillagako parkea zabaldu zenetik. Eta Diputazioaren menpe daudeen Irun, Tolosa, Ordizia eta Zarautzeko parkeetan ere arazo bera gertatzen da. Gurean 24 bonbero gara eta berrietan, berriz, 12 besterik ez. Eta sute bat amatatzeko jende gutxi da. Ez da erreza izango gure eskakizunak lortzea baina ea akordio batetara iristen garen.

***"Bonbero profesional gehiago kontratatzea eskatzen dugu"***

I T U R R I O N E T I K

## Gazte Asanbladakoek alkatearekin hitzegin zuten

Astelehenean, Gazte Asanbladaren izenean, hainbat gazte alkatearengana joan ziren Gaztetxearen inguruan berba egiteko asmoz. Alkateak negoazioetan hasteko, beste taldeekin egiten den moduan, beharrezko eskakizunak lehenbizi idatziz egin behar direla adierazi zien. Era berean, iaz Gaztetxetik hustu ziren tresna guztiak jasotzeko epe berri bat eman zaie gazteei, lehen emandako epea aspaldi amaitu baitzen. Aipatutako tresnak Udaleko lokal batean gordeta daude eta Udalak Gazte Asanbladakoen abokatuarekin kontaktuan jarri da, gazteek lehen bait lehen tresna horiek erretira ditzaten.

E S A N D U T E

"Adituek diotenez, arabar Errioxako aurtengo ardo uzta aparta izango da, 1964ko uztaren parekoa. Ardo gaztea saldu beharrean, zatirik gehiena kriantzarako edota bizi luzeko eta kalitatezko ardoa egiteko erabiliko da"

**GERMAN MURUAMENDIARAZ**
Elikadura Politikarako Zuzendaria
EUSKADI IRRATIA

●

"Lehen behintzat nabari zen alderdi abertzaleek zerbait egiten zutela euskararen alde, boterea ez zutenean"

**ITZIAR MUJIKA**
EHEko partaidea
EGUNKARIA

●

"Norbegiako nekazariek, euskaldun gehienok bezala, klima eta orografia direla eta, ez dute, ez dugu, prezioan, izadiak erreztasun gehiago eman dien herrialdeekin konpetitzerik. Hala ere, garbi dute nekazariak beharrezkoak direla"

**MAITE ARISTEGI**
EHNEko partaidea
EGIN

●




FORREST GUMP
Ostirala: 22.30.
Larunbata: 16.45, 19.30, 22.30.
Igandea: 16.45, 19.30, 22.15.
Astelehena: 22.30.
Asteartea: 16.45, 19.30, 22.15.



MI CHICA 2
Igandea: 11.30.



TESS Y SU GUARDAESPALDAS
Osteguna: 17.00, 19.30, 22.15

## Zinea

▼▼ **Tom Hanks** aktoreak, *Philadelphia* filmean bezala, kritika eta ikuslegoaren errekonozimendua jaso du **Robert Zemeckis**en filme honetan egindako lan bikainagatik. *Forrest Gump* inozo zortedun bat dugu eta autobus geltoki batean bere bizitza kontatzen digu, bide batez, Estatu Batuetako azken urteotako historiari errepaso umoretsu, nostaljiko eta kritikoa emanez.

▼▼ Bi urte pasa dira aurreneko zatiarekiko eta *Vada*k (**Anna Chlumsky**) ondo baino hobeto daki batek ez dakiela nor den nondik datorren jakin arte. Horrela topatuko du benetako amodioa. Bere lagunik onena galdu ondoren, *Nick*en (**Austin O´Brien**) oso laguna egingo da *Vada*. **Dan Aykroyd** eta **Jamie Lee Curtis**ekin.

▼▼ *Doug Chesnic* (**Nicolas Cage**) ajenteari benetan misio zaila agindu diote: Estatu Batuetako Presidentearen emaztea (**Shirley Mac Laine**) babestea. Lan zaila bada ere, uste baino buruhauste gehiago ekarriko dizkio, izan ere benetako arriskua Presidentearen emaztea baita. **Hugh Wilson**ek zuzendutako komedia.

## Deiak

▼ **JARDUN**ek antolatuta, haurrentzako *"Wanda izeneko arraina"* filmea larunbatean 11etan Kultur Etxean. Sarrera 50 pezeta.

▼ **Sofia Gimber** neskatilaren margoak Nahikari tabernan ikusgai abenduaren amaierara arte.

▼ **Aisialdiko** Begirale Ikastaroa Beasainen. Argibide gehiago 88 75 12 telefono zenbakian.

▼ **Gestio Informatika** ikastaroa abendutik aurrera Sierbetan. Klaseak larunbat goizetan izango dira. Herriz Herri Informatikak antolatuta. Argibideak 67 40 05 telefonoan.

## Ogia

▼ **Igandea 4:** Mizpildi.
▼ **Asteartea 6:** Ogizun.
▼ **Osteguna 8:** Konde.

## GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Ostirala 2:** Guallar.
▼ **Larunbata 3:** Estella.
▼ **Igandea 4:** Estella.
▼ **Astelehena 5:** Mozos.
▼ **Asteartea 6:** Camacho.
▼ **Asteazkena 7:** Puy.
▼ **Osteguna 8:** Guallar.



ETXEPARE-BILINTX
LIBURUDENDA
Liburuak eta diskoak
Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

# Diru eta seiluak ikusgai

## *Bergarako Diru eta Seilu Bildumazaleen Elkarteak kolekzionistei zuzendutako Koldo Eleizalderen omenezko zigilua egin du*

**Diru eta Seilu** Bildumazaleen Elkarteak erakusketa bat antolatu du bihartik, hilak 3, abenduaren 11ra bitartean Kultur Etxean. Bergarako Diru eta Seilu Bildumazaleen Elkartea 1972an sortu zen Mirentxu Goñik eta Joaquin Etxanizek herriko kolekzionistei dei bat zabaldu ondoren. Txaro Zabala izan zen elkarteko lehen presidentea.

Urte hartatik hona 23 erakusketa antolatu dituzte eta gaur egun 70 bat lagun dira elkartean eta astero, astearte eta ostegunez, biltzen dira Kultur Etxean. Beren hitzetan, *"bildumazale gehiago dira herrian baina asko beren kontura ibiltzen dira. Gazteen artean zaletasun haundia dago baina denbora faltagatik edo ez dira etortzen. Gainera mugidu egin behar da asko, ikasi, irakurri... eta horrek denbora eskatzen du"*.



Bergarako bildumazaleak astero, astearte eta ostegunez, Kultur Etxean biltzen dira.

Aiara Teran (12 urte) eta Ugutz Basauri (18) dira elkarteko partaiderik gazteenak. Ugutzek azaltzen digunez, *"orain 4 bat urte hasi nintzen aitak kanpotik ekartzen zizkidan monetak kolekzionatzen eta herrian kolekzionisten elkarte bat zegoela enteratu nintzenean etortzen hasi nintzen bileretara"*.

Larunbat eguerdian inauguratuko den erakusketan Jesusa Igarzabal, Juanita Lasa, Ugutz Basauri, Nieves Goirizelaia, Txaro Zabala, Mirentxu Goñi, Mari Tere Bergara, Antolin Marchena, Aureliano Teran, Aiara Teran, Juanito Imaz, Iosu Ugalde Rafael Osuna eta kanpoko hainbat bildumazalek hartuko dute parte.

Juanita Lasaren hitzetan, *"hasi ginenean beharbada seiluak kolekzionatzen ziren gehiago eta gaur egun, berriz dirua. Baina gu danetik kolekzionatzen dugu: pegatinak, egutegiak, tarjeta postalak..."*. Zaletasun garestia den galdetu diegunean zera esan digute: *"uste baino gutxiago. Baina denda eta interkanbioetan oferta onak lortu behar dira..."*.

Erakusketan gai ezberdinak ikusteko aukera izango da eta kolekzionistei zuzenduta, Elkarteak Koldo Eleizalderen omenezko mataseilu bat egin du. Sobreak zigilatzeko aukera izango da larunbat eta igandean 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara eta astelehenean 6etatik 8etara.

EGUREN
GESTORIA
Maria Pilar Eguren Díez
Kolegiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta Plaza, 3 behea
☎ 76 21 65 / 76 24 45

AGENTZIA:
J. ELKORO
Ibargarai, 2 behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA
ZURICH
VITA
UNIBER
CAUDAL
HISPANIA
ZURICH TALDEA ASEGURUAK

Artekale, 27
☎ 76 50 80
(Gaueko 9etatik aurrera)
ATABAKA
Bittoriano Larrañaga
SALEROSKETAK
Zure esanetara!!
ANTZINAKO GAUZAK

BALDANA
ALBAITARITZA KLINIKA
TXAKURREI IDENTIFIKAZIORAKO MIKROTXIPAK JARTZEKO KANPAINA. ABENDUAREN 31ra ARTE.
OHARRA: DERRIGORREZKOA DA MIKROTXIP HAUEK JARTZEA.
Koldo Eleizalde, 28 ☎ 76 27 97 / 90 81 09 30

## Koldo Pereirak ez du enteratu nahi

"Gezur baten historia" kontatu nahi izan zigun Koldo Pereira Euskera Batzordeburuak azaroaren 25eko BERRIGARAn. Hau da, EAren zinegotziak ez garela enteratzen eta gezurretan ari garela frogatu nahi izan zuen. Baina behin eta berriz frogatu zuen gauza bakarra zera izan zen: gezurretan ari dena eta enteratzen ez den bakarra Koldo Pereira bera dela. Ikusi dezagun bestela:

1. Uka ezina da Gobernu Batzordeak euskara-gaitasuna beharrezkotzat jo zuela hainbat lanpostu betetzeko, baina lanpostu horiek betetzerakoan euskara ez zela kontutan hartu. Ez, beharbada, borondate txarrez, baina bai Koldo Pereirari pasatu egin zitzaiolako. Beraz, Koldo Pereira da enteratzen ez dena, nahiz eta bera izan Euskara Batzordeburua.

2. Kalean dagoen arazoa eta prentsan zabaldu den eztabaida sortu dira, hain zuzen ere, EAren zinegotziak enteratu garelako. Eta, enteratzeaz gainera, hobe beharrez salatu egin dugulako. Guregatik izan ez balitz, Koldo Pereirak linboan jarraituko luke.

3. EAren ziengotziok badakigu sortu den auzi honetan soluzioa ez dela erreza. Jakin ere badakigu, isildu izan bagina ez zela eztabaidarik sortuko baina, hala ere, uste dugu:

a) Gobernu Batzordeak hartzen dituen erabakiak betetzeko direla eta ez jo-ta-pasa egiteko.

b) Hartutako erabakia ez zela gutxi batzuen arazo pertsonala konpontzeko hartu, denok hitzetik hortzera aldarrikatzen dugun euskararen normalizazioa bideratzeko baizik.

d) Sarri asko politikariei koerente izatea eskatzen zaie. Ez du gero balio koerentzia praktikan jartzen denean, edozein preziotan arazoak izkutatu nahi izatea konponbidea popularra ez delako.

Hitz batez, EAren zinegotziok Udalean izan den akats bat salatu nahi izan dugu. Ez gehiago eta ez gutxiago. Hain zuzen ere, Koldo Pereira denboraz enteratu ez delako.

EAREN ZINEGOTZIAK

## Gezur baten historia II

Euskara eskakizuna kontutan hartu gabe Gobernu batzordeak egindako kontratazioak direla eta sortu diren iskanbila, esames eta ulertezinei aurre eginez, zenbait azalpen egiteaz gainera, Koldo Pereirak, P.N.V.ko zinegotzia eta Euskara Batzordeburuak, joan den astean orri hauetan argitaratu zuen idatziari puntualizazio batzuk egitea nahi nioke.

1. Euskara Batzordeburuak esaten digu bere idatzian "Euskara Batzordean Herri Batasuneko zinegotziak adierazi zuela, agian, bere taldeak errekurritu egingo zuela erabakia. Non dago errekurtsoa? Hitzak bakarrik? Non dago hipokresia? H.B.ko zinegotziak esan zuena hauxe izan zen: "Euskara Batzordeak ez badu ezer egiten, bere taldeari errekurtsoa edo beste zerbait egitea proposatuko diola"-azaroaren 10eko Euskara Batzordearen aktan batuta dago-Taldean arazoa aztertu genuenean bai langile, bai emakume multzo garrantzitsu baten ilusioei zor diegun kontsiderazioagatik egoera horren kontrako inolako errekurtsorik ez genuela burutuko erabaki genuen. Non ikusten du Pereira jaunak gure hipokresia?

2.- Beste momentu baten irakurtzen dugu: "H.B. eta E.A.ko zinegotziak ez dira enteratzen eta are gehiago, gutuna idazterako, Gobernu Batzordeak zuzendua zuen gaia". Zergatik esaten du Pereira jaunak ez garela enteratzen? Bera da errudunetariko bat, P.N.V.-P.S.O.Eren inposaketaren ondorioz bazterturik bait gaude Udal Gobernu Batzordetik bai E.A. eta bai H.B., la herritar erdien borondatea mezprezatuz.

Zergatik esaten du azaroaren 14tik aurrera arazoa konponduta dagoela? Lehen euskara zen arazoa, orain ez dugu ez euskararik, ez lanposturik eta ezta ere ikastarorik. Hau da gauzak konpontzeko modua!

Dena den eta garrantzitsuena, zergatik daude emakume horiek ikastarorik gabe?

Azkenik, Gobernu Batzorde honi bere akatsak asumitzeko ausardia izan dezala eta lehen bait lehen arazoari irtenbide bat eman diezaiola eskatzen diogu.

HBKO ZINEGOTZI TALDEA

## Zuzenketa

Hauteskunde sindikalak Altos Hornos de Bergara lantegian izan dira eta ez Zerrajeran, joan zen astean jarritako moduan. 1988.urtean egin zen izen aldaketa.

## Tiiira biraka

UNAI AZKARATE



### ♦ Pol-Polaren oharra

Pol-Pol Mendizale Taldeak bazkide eta lagun guztiei 1995 urteko mendiko federatu karneten berriztea martxan jarri dela jakin arazi nahi zaie.

### ♦ Gabonetako prestakuntzak

18 bat komertziok hartuko dute Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatutako eskaparate lehiaketan. Eskaparateak prest egon beharko dira abenduaren 7rako eta erakustaldiak abenduaren 18ra arte iraungo du. Hiru lehen hirurek 100.000, 50.000 eta 25.000 pezetako sariak jasoko dituzte. Bestalde, herriko kaleak ohizko argiekin apainduko dira Gabonetan. Kultura Zerbitzuak engantxeak egin ahal izateko erreztasunak emateko eskatzen die herritarrei.

### JAIOTAKOAK

**Ainhoa De Marcos Cid**
Azaroak 20
**Asier Taboada Bardeci**
Azaroak 22
**Nerea Urresti Galdona**
Azaroak 25

### HILDAKOAK

**Prudencio Pildain San Miguel**
Azaroak 25, 73 urte

# Ruanda eta Nikaraguaren aldeko dirulaguntza emango du Udalak

Victoriano Gallastegi alkateak Bergarako Udalak herrialde pobreei zuzentzeko dituen partidak (aurrekontuko % 0,25a) proiektu zehatzei emango zaiela adierazi zuen ostiralean prentsaurrean: *"aurten Ruanda eta Nikaraguako herrialdeak aukeratu ditugu"*. Ostiralean bertan aurkeztu zen Ruanda herriaren alde lau lagunek txakurrez tiraturiko lerekin egingo duten Euskadiko Itzulia. Udalak milioi bat pezetako dirulaguntza emango du; 600.000 pezeta Ruandako fondora emango dira eta beste 400.000 pezeta beharrezko ekipo teknikoa osatzen gastatuko dira. Partaideak abenduaren 11n aterako dira Bergaratik eta urtarrilaren 11n amaituko dute beren ibilbidea gure herrian bertan. Guztira 45 hiri eta herri bisitatuko dituzte, 1.000 Km. inguru eginaz.



Asen Garitano bergararrak beste 3 lagunekin batera txakur lerekin Ruandaren aldeko Euskadiko Itzulia egingo du.

Patxi Maestro, Eneko Eizagirre, Arturo Fernández eta Axen Garitano bergararrak osatzen duten taldeak dagoeneko hainbat laguntza jaso du.Horrez gain laguntza jasotzeko kontu korronte bat ireki da Euskadiko Kutxan (053.000.276-9). Bisitatutako herri bakoitzean, berriz, Udala edota Eliza izango dira dirua batzeaz arduratuko direnak.

Nikaraguako kasuan berriz, Granada hiriko Guapinol auzoan lanean ari diren Mariaren Lagundiko monjek ere eskakizun bat egin zioten Udalari bertako arazoei aurre egin ahal izateko Etxe Komunitario bat egiten kolaboratzeko. Jose Angel Mikeo Mariaren Lagundiko irakaslea interlokutorea izanik, azkenean, Astigarragako Udalarekin batera proiektuan parte hartzea erabaki da. Udalak aurtengo aurrekontutik 1.500.000 pezetako dirulaguntza emango du eta gainontzeko 900.000 pezetak datorren urteko presupuestotik emango zaie. Bergarako Udalak kostuen 4/5ak eta Astigarragoak beste1/5a ordainduko du. Eraikiko den Etxe Komunitario horrek Kultur Etxe baten funtzioak beteko ditu bertan dauden arazo sozialei aurre egiteko. Desnutrizioaren arazoa gainditu ahal izateko Etxe Komunitario horrek jatetxe bat ere izango du. Dagoeneko 48 kaja liburu bialdu ditu Bergarako Mariaren Lagundiko Ikastolak eta aurrerago sukalderako tresnak eta horrelakoak biltzeko asmoa dago Nikaraguara bidaltzeko.

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan
Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

Amets
Ford
• HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
• Zango erremolkeak
• Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak
Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

### ◆ "Te Deum"erako sarrerak salgai

Abenduaren 19an San Pedron izango den Berliozen "Te Deum" musika emanaldirako sarrerak salgai jarri dira 1.000 pezetatan Kultur Etxean, Ariznoa tabernan, Deba Garaia inmobiliarian eta Larrañaga gozotegian. Musika sakroa delako lan honetan Hendaiako orkesta eta Arrasateko Goikobalu abesbatza, Eskoriatzako Gorosarri, Zumarragako Goiargi eta Bergarako Orfeoiak hartuko dute parte.

### ◆ Olinpiada Batzordea

Bergarako Olinpiada Batzordeak dei egiten die Gabonetan izango den jaialdian parte hartzeko interesa duten guztiei datorren asteartean, hilak 6, arratsaldeko 5etan Bergara Kirol Elkartearen bulegoan egingo den bilerarako. Aipatutako jaialdian bertsoak, txisteak, *play-back* lehiaketa, etabar luzea izango dira.

### ◆ Egoitza elkartea

Egoitza elkarteak abenduaren 8an egingo den bazkarirako gonbidapena luzatu nahi die bere bazkideei. Izen-ematea abenduaren 5ean amaituko da.

### ◆ Istripua Osintxun

Asteazkenean, goizeko 3.15etan, Jose Maria B.S. 30 urteko tolosarrak gidatzen zuen kotxeak istripua izan zuen Osintxuko bidegurutzean agertu zitzaion asto baten kontra. Kolpearen ondorioz, gidaria Arrasatera eraman zuten garrantzirik gabeko zauriekin eta astoa hil egin zen.



Astelehen goizean emakumeak Plazan bildu ziren Udaletxean idatzia aurkeztu aurretik.

# Eskulan ikastaroko emakumeen protesta

*Irakaslea mantendu eta kurtsoa jarraitzeko eskatzen dute*

Kultur Etxean ematen ari zen eskulan ikastaro eten delako protesta egiteko 50 bat lagunez osatutako emakume talde batek idatzi bat aurkeztu zuen astelehen goizean Udal bulegoetan. Ikastaroa aurreko ostegunean, azaroak 24, bertan behera utzi zen Justi Asensio irakasleak beharrezko euskara maila betetzen ez zuelako. Justi Asensio eta Izaskun Murgizuk ikastaro hori emateko plazak eskuratu zituzten, baina ez zuten klaseak euskaraz eman ahal izateko frogatu oinarrietan eskatzen zen maila. Ondorioz, kolaboratzaile bat aurkezteko aukera eman zitzaien. Izaskun Murgizuk bere talderako (40 ikasle) kolaboratzaile bat lortu badu ere, ez da gauza bera gertatu Justi Asensiorekin. Beraz, bere taldeko klaseak suspenditu egin dira momentuz. Bere ardurapean 51 emakume ari ziren lanean.

Emakumeak eta monitoreak ados daude euskara maila bat eskatzearekin baina beren ustetan koordinazio arazo bat egon da Udaleko departamentu ezberdinen artean, euskararen betebehar hori kurtsoa hasi eta matrikulak egin ondoren heldu baita. Ondorioz, 70 bat sinadura jaso dituzte monitoreak mantendu eta hurrengoan euskararen gai hori hasieratik garbi geratu dadila eskatuz. Ikastaroko matrikula maiatzera arte ordaindu eta hainbat gastu egin dituzte emakumeek. Udaleko alderdi politiko guztiekin egoteko asmoa azaldu dute.

Zumelaga
JATETXEA
San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21
IGANDETAN ZABALIK!!

ZAPELAITZ
Taberna
Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera
San Lorentzo, 25 BERGARA

# Juan Martin Elexpururen "Kuba triste dago" liburua aurkeztu da

## *Jende ugari Guatemala eta Kubari buruzko ekitaldietan*

Juan Martin Elexpururen "Kuba triste dago" liburua aurkeztu zen asteazkenean. Aurkezpen ekitaldian Xabier Mendigurenek Juan Martinen azken bidaia liburu hau bitxia dela adierazi zuen: *"hango berba eta doinuz idatzita dago eta oso errez irakurtzen da"*. Juan Martinek, berriz, bere esperientziaren berri eman zuen, Kuban zehar eginiko ibilbidea eta hainbat anekdota kontatuz Kultur Etxean bildutakoei. Liburua salgai jarriko da Durangoko Euskal Liburu eta Disko azokaren ondoren.

Juan Martinen ondoren Aitor Iturriaga eta Alberto Iñurrietak uda honetan Kuban bertan brigadista bezala egin duten lana eta bertako egoera azaldu zuten diapositiben laguntzaz. Asteartean ere jende ugari bildu zen Imanol Larreak Guatemalari buruz eskainitako diapositiba emanaldian. Egunotan bi herrialdeetako kartel eta argazki erakusketa ere izan dugu ikusgai.




Juan Martin Elexpuru eta Xabier Mendiguren Elkareko ordezkaria asteazkeneko ekitaldian.

### ◆ Datorren astean ez da Berrigara argitaratuko

Datorren asteko zubia dela eta, hurrengo ostiralean ez da Berrigara kaleratuko. Hurrengo alea abenduaren 16an helduko zaizue zuen etxeetara.

### ◆ Zine karteldegia

Novedades zine aretoak honako filme hauek iragarri ditu datorren asterako: Donostiako azken Zine Jaialdia irabazi zuen *"Dias contados"* filmea ostiralean (hilak 9), igandean (hilak 11) eta astelehenean (hilak 12) ikusi ahal izango da. Igande horretako matinalean *"Mano a mano con papá"* iragarri da, larunbatean (hilak 10) *"Por fin sólos"* emango da eta osteguneko (hilak 15) zineklubean, *"Priscilla, reina del desierto"*.

### ◆ Udazken Kulturala

Abenduaren 16an *"Historia de las Cátedras de Química y Mineralogía de Bergara a finales del siglo XVIII"* liburuaren aurkezpena egingo da 7etan Kultur Etxean. Ondoren, 20.15etan Santa Marina elizan Orioko Salatxo abesbatzaren kontzertua izango da eta gaueko 10.30etan Agerre Teatro taldeak *"El borracho burlado"* lana antzestuko du Novedades aretoan gaueko 10.30etan .


# LAN ESKAINTZA

**PUBLIZITATE LANEAN JARDUTEKO KOMERTZIALA BEHAR DA**

**Beharrezkoa**
- Euskaraz ondo jakitea, idatziz eta ahoz
- Harremanetarako erraztasuna

**Baloratzekoak**
- Maketazio eta diseinu grafiko arloko jakituria
- Herri-aldizkariak ezagutzea
- Komertzial lanetan izandako esperientzia
- Argazkigintza arloko jakituria

**Argibide gehiago jasotzeko edo curriculumak bidaltzeko helbideak:**
**• BERRIGARA. Errotalde jauregia. Bergara. ☎ 76 03 97**
**• ElgoiBARREN. Nafarroa enparantza, 2. Elgoibar. ☎ 74 41 12**
**Eskaerak eta curriculumak aurkezteko epea: abenduaren 13a.**

HARATEGIA- URDAITEGIA
**Sebastian Imaz**
Bildotsa, txahala eta oilazkoak
Harane Erreka, 1 ☎ 76 32 67 BERGARA

PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!
**EUXEBIO II**
Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92




DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Obra Hidrauliko eta Ingurugiro Departamentua
Departamento de Obras Hidráulicas y Medio Ambiente

**Lierni Irizar bergararrak urte asko daramatza gure herritik kanpo bizitzen, Donostian eta Oiartzunen hain zuzen ere. Atzo izandako HIESaren aurkako eguna dela eta, komunikabide ezberdinetan ikusteko aukera izan dugu eta guk ere HIESaren aurka daraman borrokaren berri jakiteko elkarrizketatu dugu.**

## HIESaren birusaz kutsatua

# Lierni Irizar

## *"Beti gaisotasunaren aurpegi iluna erakutsi da"*

**- Noiz eta zela konturatu zinen HIESa zenuela?**

- Duela hiru urte inguru, osasun arazoak izan nituen, kalentura, ganglioen inflamazioa... Medikuarengana joan nintzen eta VIH froga egitea gomendatu zidan. Frogak egitera joatean ez nuen pentsatzen HIESa izango nuenik. Baina frogek positibo eman zuten.

**- HIESa zenuela jakiteak nola aldatu zuen zure bizitza?**

- Hasieran HIESari buruz informazio gutxi nuen eta nekien gauza bakarra zen gaisotasun hori heriotz sententzia bat zela. Hasierakoa oso gogorra izan zen, zailena beldurra gainditzea izan zen. Hortik aurrera prozesu pertsonal bat da. Gaisotasuna asumitu behar duzu eta nire bizitza aspektu askotan aldatu da. Orain bizitza lehen baino gehiago baloratzen dut. Agian ez zait inporta zenbat denbora biziko naizen, denbora hori nola biziko dudan baizik.


"Froga egin behar duenari informazioa eman behar zaio aurretik"

**- Berri txarra jaso zenuenean ze laguntza mota behar izan zenuen?**

- Printzipioz uste dut froga egin behar duen pertsonari informazioa eman behar zaiola aurretik. Esan behar zaio positiboa ematen badu, ez dela berehala hilgo, badaudela pertsona batzuk seropositibo izanik 14 urte daramatzatenak bizirik. Azken finean esperantza ematea da, ze tratamendu jarraitu behar den etab. azalduz.

**- Familiaren laguntza garrantzitsua izango da...**

- Bai, nire senarrari esan nion eta asko lagundu dit. Lagunei ere esan nien eta euren aldetik laguntza haundia izan dut. Guraso eta senitartekoei esatea gehiago kostatu zitzaidan, ez, ez zidatelako lagunduko, eurek hartuko zuten egurragatik baizik. Familiak asko lagundu dit, orain aurpegia ematen hasi naizenean ere asko laguntzen didate. Donostiako eritetxeko

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Apainketarako eta industriarako pinturak •
• Paper margotuak •
• Moketak eta tapizatuak •

Usoa Pub
☎ 76 38 57
Irala, 1

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Uriarte, 8 BERGARA
☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxa: 76 04 77

infekziosoen unitateko psikiatra baten laguntza behar izan nuen eta asko lagundu zidan. Batez ere zentratzeko eta jakiteko gaisotaun honekin bizitzen jarraitu dezakedala.

# "Orain bizitza gehiago baloratzen dut. Agian ez zait inporta zenbat denbora biziko naizen, nola biziko dudan baizik"

### "Onartu behar duzu osasunez ahulago zaudela"

**- Zeintzu izan dira, zure eguneroko bizitzan gainditu behar izan dituzun zailtasunik handienak?**

- Zailtasun multzo bat da. Onartu behar duzu hainbatero errebisio medikuak egin behar dituzula, egun baten azaleko infekzio bat duzu, hurrengoan beste zerbait. Onartu behar duzu osasunez ahulago zaudela eta hori zaila da onartzeko. Hiru urte hauetan denbora izan dut gauzak birplanteatzeko. Lana oztopo handia izan zen. Donostiako Udalean Zerbitzu Sozialetan nengoen eta defentsak asko jeitsi zitzaizkidan, osasunez oso ahulduta negoen, lanera sukarrarekin joan behar nuen, ordutegi bati lotuta nengoen eta ezgaitasuna eman zidatenean nire bizitzak hobera egin du. Bai bizimodu aldetik eta bai osasun aldetik ere, defentsak igo egin zaizkit eta.

**- Jarraitu behar duzun tratamendua gogorra al da?**

- Orain arte DDI medikamentua egunero egon naiz hartzen, baina urdail eta giltzurrun arazoak izan ditudanez, utzi egin dut. Gero hilean behin Erresidentziara joaten izan naiz neumonia prebenitzeko tratamendu bat hartzeko, baina hori ere momentuz, defentsak estable ditudanez, kendu egin didate.

**- Pasa den hiru urtetatik hona aldatu al da HIESarekiko jendearen jarrera?**

- Nik uste dut aldatu dela. Nire inguruan behintzat ez dut aurkitu inor HIESa izateagatik alde batera utzi nauenik. Halere hitzaldi bat ematera joaten naizenean ikusten dut jendeak informazio gutxi duela. Informazioan asko insistitu behar da, hiru urte daramat gaisotasunarekin eta beti ikasten dut zerbait berria.

**- Azkenaldian komunikabide ezberdinetan agertu izan zara, zergatik hartu duzu aurpegia emateko erabakia?**

- Nire inguruan bizi diren lagunek eta ezagunek, ikus dezaten HIESa edonori toka dakiokeen gaisotasun bat dela. Gaisotasunari buruz asko idazten da, datu asko ematen dira, baina gertutik ikusten ez baduzu, ematen du ez duela existitzen. Nik horregatik eman dut pausoa, jendeak ikus dezan gaisotasunari buruzko errealitatea.

**- HIESagatik lana utzi behar izan duzu, zure bizitza pertsonaleko beste aspektu batzuk, sexu harremanak esate baterako, normal jarraitzen dute al**



"Onartu behar duzu osasunez ahulago zaudela eta hasiera batean hori oso zaila da"

Carmen Garate
Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...
Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

GALLASTEGI
Jostundegia
mahoizko laneroko jantziak
San Pedro, 17 ☎ 76 10 85

**aldatu behar izan al dituzu?**

- Printzipioz orain lehen baino gehiago zaintzen naiz, orden bat eraman behar dut, janariarekin, lo orduekin, parranda gutxiago egin... azken finean gehiago zaindu behar naiz. Harreman sexualei dagokienez preserbagailua erabili behar dut, baina ez da eragozpena. Bestela, gehiago zaindu eta bizitza lasaiagoa egin behar dut.

### "Informazio oso sentsazionalista eman da"

**- Nola ikusten dituzu HIESaren aurka sortu diren elkarteak?**

- Oiartzun aldean elkarte bat sortu dugu eta HIES Ekimenaren eredua jarraitzen dugu. Informazioa ematera jendearengana joaten gara, eurak guregana etorri beharrean. Emakumeengana, gazteengana eta beste talde batzurengana joaten gara informazioa ematera. Informazio indibidualizatua ere ematen dugu.

**- HIESaren aurka egiteko zeintzu dira eman beharreko pausuak?**

- Informazioa ematea garrantzitsua da. Baina ez orokorrean, jendearen ondoan lan egitea da inportanteena. Ez du balio urtean behin hitzaldi bat emateak, egunero egin behar da lan. Bideoak eman, hitzaldiak, tailerrak eratu eta informatzeaz gain, sentsibilizatu egin behar da gizartea. Informazio txar asko dago gaisotasunaren inguruan, informazio oso sentsazionalista eman da. Beti gaisotasunaren aurpegi iluna erakutsi da.



Hitzaldi bat ematera joaten naizenean ikusten dut jendeak informazio gutxi duela"

**- Atzo HIESaren eguna izan zen. Zuk zer eskatuko zenuke?**

- Nik eskatuko nuke urte osoa izatea HIESaren aurkakoa eta jendeak ikasi dezala gaisotasun honekin bizitzen.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

Kutxa fundazioa

BERRI gazte
San Martin Ikastetxea • IKASLEEN ORRIAK • 23. alea

# Amodioa
# Amodioa
# Amodioa

## *Beti zurekin*

Goizean eguzkia ateratzen da
arratsaldean haizearen murmuila
ta zure begien disdira

Hondartzan kaioak hegaka
eguzkia beti goi-goian, lainoak ez dira
udaren sorginduria
ta zure ezpainen leuntasuna.

Udazken haizeak hostoak daramatza
goizean ihintza jaistean
gauean ilargia ateratzen da
ta zure begirada
nire amodioan itzaltzen da.

Neguan elurra jausten da
mendiak zuri-zuriak lagatzean
zuhaitzak apaintzen dira
ta zu ez bazara,
nire bihotza elurrez beteko da.
'NIRE BIHOTZA HILTZEN DA,
ZURE AMODIOA ILUNTZEN BADA,
NIRE ODOLA IZOZTUKO DA,
NIRE ONDOAN EZ BAZARA

YOANA H. (8. MAILA)

## *Lehen amorea*

Lehen amorea azaroan zen
San Martin eskolan.
Nere lehenengo amorea Ander zen
eta nere lagunarena Fran zen.
Lehenengo mailan
maitemindu nintzen
Gero haundi egin nintzenean
bikote bihurtu ginen.
Baina gero apurtu zen
gure harremana
eta bukatu zen lehen amorea

OUEF ETA ALICIA (6. MAILA)

## *Amodioa*

Ze tristea den maitatzea
pertsona bat
pertsona honek beste bat
maitatzen duenenan.
Ze tristea den pentsatzea hau
bestearekin dagoela
eta zu negarrez zaudela zure
etxeko bazter batean.
Ni negarrez, zu musuak ematen...
ni zutaz pentsatzen
eta zu bestearekin disfrutatzen.
Ze tristea den maitatzea
pertsona bat
pertsona honek beste bat
maitatzen duenean.

IRENE (8. MAILA)

## *Azken eguna*

Udazkenean izan zen
arratsalde hotz batean
juntu-juntu gindoazen
ixil-ixilik paseatzen

Haize gogorra zegoen
zuhaitzak biluzik zeuden
lehen eguna bazen bezala
azkena izanaz.

Hurrengo egunean
joan behar zinela
pentsatzean
gauza bat sartzen
zitzaidan gorputzean,
tristura haundi bat,
azken musua ematean
tristura eta poza batera
momentu onak gogoratzen
egon ginen orduan.

Orain agur esan beharko
malkoak begietan
besarkada haundi bat
eta agur, betirako?

ANA GONZALEZ (8. MAILA)

# Zer dago gaizki Bergaran?

